

Nafar hizkuntza

eusker@diariodenavarra.es

Euskarari buruzko bost hitzaldi gaztelaniaz Iruñean

Iruñeko Udalak Nafar Ate-neoarekin elkarlanean euskarari buruzko hitzaldi zikloa antolatu du gaztelaniaz, urtero bezala. Euskarari buruz mintza gaitezen izenburupean, aurrekari historikoak eta gaurko egoera aztertuko da, baita etorkinen eragina ere. Hizlarien artean, Miquel Gros i Lladós (*Euskararen berreskuratzea Nafarroan: klabe eta ondorioak*, azaroaren 16an), Fernando González Ollé (*Zenbait datu eta proposamen Nafarroako hizkuntza egoerari buruz antzinatean*, 19an), Txomin Peillen Karrikaburu (*Euskaraz idatzi 1950-1960 urteetan. Belau-naldi berritzailea*, 20an), Jon Maia bertsolaria, (26an) eta Mario Zapata Solano (*Euskarra inmigrazio berriaren aurrean*, 27an) egongo dira. Hitzaldiak Armada Etorbideko 2. an izango dira, 19:30etan.

Berto afaria azaroaren 9an Mendillorri

Heldu den azaroaren 9an, berto afari bat egingen dute Mendillorriko Ezpondapea elkartean. Bertsolariak Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña izango dira 21:30ean. Prezioa, 25 euro. Izena emateko ezpondapea@yahoo.es (azaroaren 6a baino lehen). DDN.



DDN

Brodaturuei buruzko kamiseta.

Eusko Ikaskuntza eta Kukuxumusu elkarlanean

Eusko Ikaskuntza eta Kukuxumusu euskal kulturaren sustraitze handiko tradizioak berreskuratu nahi dituzte. Horretarako Oihalgintza izeneko kamiseta batean islatu dute gurutze-puntuz egindako euskal brodatu tipikoa. Marrazkien ondoan, Karmele Goñi etnografoak baserrietan emakume euskaldunek mendeetan zehar landutako tradizioaren garrantziaz hitz egiten duen esaldi bat erantsi du: «Euskal Herriko emakumeek hari urdina erabili zuten gurutze-puntuaren bidez ehunak mendel geometrikoekin brodatzeko, era honetan, etxeko arropa eta arbasoei gurtza egiteko oihalak apaintzen zituzten greken edertasun soila sortuz». DDN.

Anjel Lertxundi: «Pertsona argiek beti bestearen larruan jartzen dira»

■ Idazleak gaztelaniaz argitaratu berri du 'Thes beta'

COLPISA. MADRIL.

Euskal Herrian izandako arrakastaren ondoren, Anjel Lertxundi (Orio, Gipuzkoa, 1948) idazleak gaztelaniaz argitaratu berri du *Thes beta*, bere azken eleberria. *Línea de fuga* jarri dio izenburuz (Alberdania). Argumentua: alemaniar gazte bat, hitlertar gazteen kidea, judutar senar-emazte baten semea dela deskubritzen du. Nobela 1937 eta 1941 urteen artean gertatzen da.

«Judutarrekiko sentitzen zuen mespretxu guztia, bapatean, bere aurpegian egiten dio eztanda», azaltzen du euskal idazle ospetsuak. «Mutil honek alemaniar kultura dauka, alemaniar pentsamoldeak, eta judutar odola; bere nortasunaren prozesua jarraitzea interesatzen zitzaidan, nola jartzen den aurrez aurre bere buruarekin».

Lertxundik, kritikak esan duen bezala, bere istorioa eta euskal egoeraren artean paralelismorik badaudela onartzen du. «Nire eleberrietan ez dago jarraibide edo ondorio, baina hausnarketak baditu; nire ustez pertsona argiek bestearen larruan jartzen dira; ahalegin hori egitean distantziak murriztu egiten dira».

Hitlerrengatik milaka gaztek sentitu zuten lilura hori ulertzeko arazoak —justifikaziorik ez— aurkitzen ditu gipuzkoar idazle honek. «Gudu bat galtzetik zetozen, bake akordio iraingarri batekin, herria krisis ekonomiko baten baitan zegoen

murgildurik, judutar poblazioren zenbait gune aberasten ari ziren bitartean... Hitlerekin alemaniar izatearen harrotasuna berreskuratu zuten, baina, noski, harrotasun hori kontrolaezin bilakatu zitzaion».

Lertxundik idazten igarotzen dituen denboraldi luzeak irakurtzen soilik pasatzen dituenekin txandakatzen ditu. «Irakurtzearen esperientzia niretzat idaztea bezain garrantzitsua da», esaten du. Stendhal biziko du gustoko. «Gorria eta beltza bere nobela herrikoiena da, baina niretzat bere maisu lana Parmako Kartusia da».

Unamuno eta Baroja

Miguel de Unamuno eta Pio Baroja, beraien lurrarekin oraindik gaur erlazio zaila dituzten bi euskal idazle, miresten ditu Lertxundik. «Independentsia pertsonal eta intelektualak bere ordainsaria dauka; orain asko esaten da 'nirekin edo nire kontra', eta bi idazle hauek menpe-raezinak ziren; pentsatzen zute-



COLPISA

Anjel Lertxundi.

na esaten zuten eta askatasun osoz pentsatzen zuten; batzutan jarrera politiko batekin edo ideologia zehatz batekin bat egiten zuten, baina beste batzuetan ez, eta esaten zuten. Pertsona zibilizatuek, pentsatzeko auserdiak, miresgarriak dira niretzat», dio Lertxundik.

Ortzadarren jardunaldiak, 'folklorearen erakundeei' begira

■ Azaroaren 14tik 16ra burutuko dira Iruñeko Descalzos aretoan

DDN. IRUÑEA.

Ortzadar Euskal Folklore Taldeak azaroaren 14tik 16ra burutuko ditu bere jardunaldiak. Aurten, ekimen honen XXIII. edizioan, *folklorearen erakundeak* izango dituzte hizpide.

XXIII. Folklore Jardunaldi hauek kultura tradizionala ikertzeko eta zabaltzeko eginkizuna duten zenbait erakundeen lana, ikerlariei eta, oro har, publiko osoari helaraztea dute helburu.

Hitzaldiak Descalzos kaleko 72an dagoen aretoan egingo dira, beti 19:30etan. Jardunaldien hasiera azaroaren 14an, asteazkena, izango da.

Susana Irigaray, Julio Caro Baroja Museoa eta Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra aldizkariaren zuzendariak *El papel de los museos etnográficos en la investigación, la conservación y la divulgación del folklore. La labor del Museo Etnológico Julio Caro Baroja res-*

■ Hainbat aditu arituko dira museo etnografikoen, artxiboan edo herri musikaren papera aztertzen

pecto al folklore de Navarra hitzaldia emango du. Ondoren, Aitzpea Leizaola, antropologia irakaslea EHU eta Arantzadi Zientzia Elkartearen kidea *Plaza, artxiboa, antzokia: folklorearen bilakaera Euskal Herrian* hitzaldiarekin jarraituko du.

Ostegunean, Juan Mari Beltran, Herri Musikaren Txokoaren zuzendariak *Herri musikaren txokoa, herri musikaren bidean* gaiak arituko da.

Ostiralean hiru izango dira hitzaldiak. Hasteko, Emilio Xabier Dueñas, Eusko Ikaskuntzako folklore ataleko lehendakariak *La contribución histórica de Eusko Ikaskuntza al Folklore* hitzaldia eskeinitako du. Oier Araolaza Dantzan.com webgu-

nearen sustatzaile eta dantzariak, ondoren, *Etiketa-dantzan: folkloreetatik dantza tradizio-naletara*. Dantza taldeen izena eta izanak gaiak arituko da. Amaitzeko, Mikel Aranburu folklozeleak *El grupo folclórico: ¿Un elemento amortizado del patrimonio inmaterial?* izango du hizpide.

Ostiralean bertan afari eta dantzaldiaz gozatuko dute jardunaldietara joango direnek Tapia eta Leturia taldearen eskutik. Tiketa (30 euro balio dute) eta azaroaren 12ra bitartean lor daitezke bi telefono hauen bitartez: Gotzon (656768905) eta Jasone (659533390).

Jardunaldietan aurkeztuko diren lanak erredakzio batzordeak aukeratuko ditu eta, ondoren, Ortzadarek argitaratzen duen *SUKIL, kultura tradizionalaren gaineko koadernoak* liburuan argitaratuko dira. Informazio gehiago: www.ortzadar.org

MEDIKUAREN AHOTIK

Julian Bereciartua

PIPERBELTZA

EUROPAN gehien erabiltzen den espezia da piperbeltza eta gure artean sartzen ari da pixkanaka, nahiko zailtasunez.

Antzina, trukerako txanpon bezala erabili zen, gatzaren antzera. Gureak baino lehorragoak eta beroagoak diren lurretan landatzen da; hala ikusi ahal izan dut Levanteko guneetan. Baia txiki hauek ematen dituzten zuhaitzak benetako zuhaitzak dira. Baina berrogei espezie ezberdin baino gehiago daude.

Produktua baia txiki bat da, ilar alea baino txikiagoa. Nik ezagutzen ditudan kolore beltz eta zurikoak dira, nahiz eta funtsean berdinak izan; ezberdintasun bakarra zuritutakoen eta zuritugabeen artean dago. Ale beltzak besteak baino zerbait indartsuagoak dira.

Ale bezala gorde behar dira baina, txikitu baldin baditugu, oso ondo itxitako ontzietan gorde behar dira, usainik gal ez dezaten. Gaur egun janari asko daude piperbeltzez prestatzen direnak. Janariak ez ezik baita olioak eta ozpinak ere.

Erabiltzerakoan kontuz ibili behar dugu kantitatea; gogoan izan behar dugu janariaren zaporea indartzeko direla espeziak, eta ez ezkutatzeko.

Osagarri nagusiak piperina eta piperitina dira; hauek gogegarriak dira.

Sendakuntzan desinfektagarri bezala edo sukarra kentzeko erabiltzen dira. Bere botere afrodisiakoak ere aipatu ohi dira baina zientzian oinarritu gabe. Ingelesak oso zaileak dira espezia hau erabiltzen, eta Katalunian heste-beteak kontserbatzeko erabiltzen dituzte batez ere.

Mina kentzeko ere balio duela esan ohi da, batez ere hagineko mina, baina nire iritziz, mina arindu baino gehiago nahastu egiten du, bere berotasuna aho guztian zabalduz.

Iruñerriko Kultur Zirkuitua abian da

Patxi Zubizarretak *Hamar mezu eta dei bat* lana antzez-tuko du azaroaren 8an Atarrabiako gune eszenikoan (20:00). Koldo Amestoy & Pantxix Bidart-ek *Kontu Kantari* arituko dira azaroaren 17an Iruñeko Biltoki-n (20:00). Mikelazuloren *Ezerai-ketak* ikuskizuna Zaldiko Maldikoren egoitzan ikusiko dute 22an (20:00) eta Itxaro Borda, Mirentxu Agerre eta Pantxix Bidart *Hitzak musikan* taularatuko dute Axular elkartean. Guztiak, Topaguneari Iruñerriko Kultur Zirkuituan.